



Badakizu ***Euskaraz barra-barra*** markak zer esan gura dauen?

Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzuetako lokal horretan euskeraz lasai egin zeinkela, han dagozenetako batek, gitxienez, **ulertzen dauela**.

Beharbada, eurek ez deusue euskeraz egingo (edo bai) baina zuk lasai jarraitu zeinke euskeraz, beti –lokala zabalik dagoan tarte osoan– egongo da-eta pertsona bat behintzat euskeraz ulertzen dauena.

Non topatuko dozu marka hori?

Euskal Herri osoko lokaletan, ez bakarrik Mungian. Gure herrian hainbat dira marka horregaz bat egin daben lokalak (merkataritzako lokalak, ostalaritzakoak eta zerbitzuetakoak).

Ekimen honen ganeko ekarpenetarako (eretxiak, proposamenak, kejak...), hemen daukazu helbide elektronikoa hau: euskera@mungia.eus eta 94 674 90 89

*Merkatari, ostalari eta zerbitzuetako arduradunentzako informazioa atzeko aldean dago.



MUNGIA
UDALA

Merkatari, ostalari eta zerbitzuetako arduradunentzako informazioa

Zure lokalean bere **Euskaraz barra-barra** marka euki gura dozu?

Honeexek dira baldintzak

- Lokalean –zabalik dagoan tarte osoan– euskeraz ulertzen dauen pertsona batek egon beharko dau bezeroei zerbitzen, eta bezeroei ez jake inoiz gaztelaniaz egiteko eskatuko.
- Euskeraz ulertzen ez dauen langileak, hasikerako eta amaierako agurrak euskeraz egiteaz ganera, bere lankide euskaldunari deituko deutso bezeroa artatzeko.

(Lokala handia bada, ateko pegatinaz ganera, mahai-ganeko bat edo bi jasoko ditu; horretara, errazago markatuko da langile euskaldunak non dagozan.)

Onurak

- Bezeroek trankilago egingo dabe berba eurek gura daben hizkuntzan, estres linguistiko barik; euskeraz non eta nori egin ahal deutseen lokalizatuta.
- Marka orokorra da, EAEn, Nafarroan eta Iparraldean erabilten dana.
- Ofiziala da. Eusko Jaurlaritzak erregistro bateratua sortu dau eta dirulaguntza-eskarietan onurak jaso ahal izateko balioko dau.

Eskatzeko modua

Idatzi mezu bat helbide honetara: euskera@mungia.eus edo deitu 94 674 90 89 telefonora. Eskaria egiteko epe jakinik ez dago, edozein momentutan egin leiteke.

Balorazinoa

Urtean behin egingo jake balorazinoa *Euskaraz barra-barran* sartu gura daben lokalei eta lehendik dagozanei, marka emoteko zein kentzeko.

Balorazino hori udagoienean egingo da.

* *Euskaraz barra-barratik* abiatuta, doan lortu leiteke Bikain ziurtagiria. Bikain lortu gura badozu, emon izena *Euskaraz barra-barran* eta ekin bideari.

Euskaraz barra-barra es una marca que identifica a aquellos locales (comercio, hostelería y servicios) en los que la clientela en todo momento tendrá garantizada la posibilidad de usar el euskera –sin que se le pida pasar a otro idioma– estando para ello presente al menos una persona de servicio capaz de entender euskera.

El objetivo es evitar el estrés lingüístico a la clientela y permitir identificar aquellos locales en los que cada uno pueda utilizar la lengua que elija.

Es una marca de adhesión totalmente voluntaria que se utiliza en toda Euskal Herria (EAE, Nafarroa e Iparralde). Es oficial y cuenta con un registro gestionado por el Gobierno Vasco para todos los efectos (posibles subvenciones, convocatorias...).

Para poder participar o recibir más información, escribir a euskera@mungia.eus o llamar al 94 674 90 89.